

**SERVICIOS/ ZERBITZUAK**

Euskalategi / Euskalategia

E mail / Posta

Canales / Kanalak

Noticias / Berriak

Chat / Txata

Juegos / Jolasak

El Tiempo / Eguraldia

Concurso / Lehiaketa

Empleo / Enplegua

Inkestak / Encuestas

Apellidos / Abizenak

Cocina / Sukaldaritzak

Foros / Foroak

Clasificados / Sailkatuak

Boletines / Buletinak

Telefonos / Telefonoak

CANAL/ KANALAK

Noticias / Berriak

Deportes / Kirolak

Tecnología / Teknologia

Televisión / Telebista

Cultura / Kultura

Ecología / Ekologia

Cine / Zinema

TURISMO/ TURISMOA

Restaurantes / Jatetxeak

Hoteles / Hotelak

Agroturismo/ Landetxeak

Campings / Kanpinak

LA RED/ SAREA


Euskalbanner.com

Webgune.net

Lautada.net

Ofiline.com

aitor@kaixo.com



Hasiera / Inicio



Gustokoenetara gehitu/ Añadir a favoritos

Asteazkena, 20

>>BUSCADOR/ BILATZAILEAcastellano

Noticias Kaixo! Berriak

EUSKADI.-Internet bidezko www.euskaraz.tv telebista euskaldunak 100.000 bisita baino gehiago izan ditu bere lehen urtean

BILBO, 30 (EUROPA PRESS)

www.euskaraz.tv Internet bidez emititzen duen lehenengo telebista euskaldunak 2004ko martxoaren 30ean hasi zituen bere emanaldiak. Urtebete honetan, bost kanal tematikoetan (albisteak, hitzaldiak, erakusketak, turismoa eta zabalik) 1.400 ordu inguru emititu dira eta webguneak 100.000 bisita baino gehiago izan ditu.

Proyección Taldeko iturriek prentsa-ohar bidez gaur jakinarazi dutenez, bost kanaletako emanaldi guztien artean 15.000 ordu inguru ikusi eta entzun dituzte bisitariak, eta Bernardo Atxagak egindako "Leku bikoitzak" hitzaldia izan da euskal nabigatzaileek gehien eskatutako emanaldia.

Proyección Taldea da www.euskaraz.tv telebistaren sustatzailea, eta enpresa bilbotar hau izan zen ere www.proyeccion.tv proiektua martxan jarri zuena (Estatu zein Euskal Herri mailan Internetetik ikus-entzunezko edukiak emititu zituen lehen telebista).

www.euskaraz.tv telebistak egin duen lehen urtean, eskaintza informatibo berezi moduan eta euskal komunikabideen osagarri bezala sendotu da, eta bi izan dira eragile nagusiak: informazioaren teknologia berriak erabiltzea eta edukiak osorik emititzea.

Azken urtean proiektua martxan jarri eta garatu ondoren, hemendik aurrera hainbat helburu aurreikusi dira: audientzia handitzea, ekitaldi informatibo gehiago lantzea, geografia esparrua handitzea, eduki propioak sortzea eta seigarren kanal bat sortzea; seigarren kanal honen helburua, kongresuak, jardunaldiak eta mintegiak emititzea izango da, betiere euskararen inguruan garatutakoak.

Martxan jartzean, Bizkaiko Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailen babesa jaso zuen arren, www.euskaraz.tv oraindik ere hedabide fizitarioa da. Zentzu honetan, doakotasunak dakarren zama autofinantzazioaren bidez gaingitu nahi du proyección Taldeak, instituzio, erakunde eta enpresen euskarazko insertzioak eta publizitate kanpainak lortuz eta Internet bidezko ikus-entzunezko zerbitzuak eskainiz, kontuan hartuz azken sektore honetan Euskaltzaindia bezalako bezeroak lortu dituela.

**Enviar la noticia a un amigo
Berria lagun bati bidali**

Este es un servicio de noticias creado por Europa Press y distribuido por Kaixo!.
Está prohibida la reproducción sin la autorización expresa de Europa Press

EUSKALBANNER.COM

